


# Berbarotarra

## ONGI ETORRI 2011



Ke tal? Jauar-iu? Koman sa-ba?  
 Ze moduz? ere jatorra da, ba!  
 Badator, bai, Gabon Gaba...  
 Edan xanpaina edo kaba...  
 edo, gura baduzu, ura!  
 Baina hartu ezpainetan zura,  
 zintzelkatu zerotik zerura,  
 hor duzu-eta eskultura,  
 bai, bada euskal kultura!  
 Euskaldunon abentura!  
 Urtarriletik abendura,  
 urtero-urtero,  
 Harro! Harro! Gure Olentzero!  
 Ez gara heroi, ez gara ero!  
 Ez gara hamar, ez gara zero!  
 Beti gerotik gerora,  
 beti ahotik ahora!  
 Zatoz DuranGora!  
 Gure mihinen altzora!  
 Zer? Bagara ala ez gara?  
 Bai, hementxe gara...  
 ... eta geu gara euskara!

Beste urte batez ere bagabiltza urteko azken bertso saioa antolatzen. Aurtien ere Igor eta Unaik saio polita daukate esku artean. Urtero lez, abenduaren 30ean Plateruenean, 22:00etan, lau bertsolari: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia eta Eneko Abasolo "Abarkas" lanean jarriko dituzte. Iaz Txapelketa Nagusia izan genuen eta bertatik etorri zitzaizkigun bertsolariak. Aurtengoan aldiz, Iparraldeko Bertsulari Xapelketa eta Bizkaiko Txapelketan aritu dira Amets eta Abarkas; eta herriz-herriz bertsoetatuz gozarazten gipuzkoarrak.

Irakurtzen ari zaren ale hau 50.alea denez, aurtengo saiorako bi sarrera ditugu bazkideen artean zozketa bidez oparitzeko. Emaiguzu zure izena eta sartu zozketan. Bizkaiko Txapelketan hainbatetan entzun dugun bezala, "plazan alkartuko gara".

# URTEKO AZKEN BERTSO SAIOA

Maialen Lujanbio  
 Amets Arzallus  
 Jon Maia  
 Eneko Abasolo (Abarkas)

ABENDUAK 30 Osteguna 22:00etan  
 Sarrera 8€ (Berbarotarrek 5€)





Haur Literatura Aretoa, azaroaren 15ean martxan jarri genuenetik, ibilbide luzea egin du dagoeneko. Zornotza, Elorrio, Berriz eta Zaldibarretik pasatu ondoren, oraindik azken txanpa falta zaigu Durangon. Aretoa egin duen ibilbide honetan bidelagun izan ditugu hainbat eta hainbat ikastetxe, ume, idazle, hezitzaile eta baita Karrika antzerki taldea ere.

Aurten, Karrikarekin elkarlanean prestatu ditugu Haur Hezkuntzako ikasleentzako "Amama lo dago" ipuin antzeztuak eta baita Lehen Hezkuntzakoentzako "Txorimaloak ba al du bihotzik?" antzezlana, biodibertsitatearen gaia landuz.

Erakusketa girotuan, hezitzaileek dinamizatutako ekintzak antolatu ditugu; Irakurgidan batu ditugun 2010eko argitalpenak eta 2009ko liburu gomendagarriak ezagutu eta beraiekin gozatzeko asmoz.

Idazle asko ere hurbildu dira gure aretora eta beraien liburuetan oinarrituz, hainbat istorio eta bitxikeria kontatu dizkigute: Arrate Egañaren brailez idatzitako liburua ezagutu dugu, Jon Arretxeren Indiako bidaia eta argazkiak ikusi ditugu, Antton Irustaren kontaketak eta hitz-errimak, Pako Aristiren Nemesio gertuago izan dugu. Eta beste hainbat idazle beraien liburuekin; Joxe Mari Iturralde, Sustrai Colina, Mikel Taberna, Katixa Agirre, Patxi Zubizarreta, Karlos Gorrindo, Iñaki Zubeldia, besteak beste.

Ibilbide oso horren barruan, geldialditxoak izan dugu Liburu eta Disko Azokan eta bertara hurbildu diren guztiei irekia izan dugu Aretoa abenduaren 5etik 8ra bitartean. Egitarau bete-betea izan dugu egun guztietan eta ez dira falta izan antzerkiak, ipuin kontalariak, idazleak, marrazkilariak, pailazoak, musika, eskulanak, bideo emanaldiak, karaokeak eta zelan ez, herri gonbidatua izan den Kurdistango kulturaren abesti eta dantzak.

Abenduaren 22an aretoa atek itxiko ditu eta datorren urtekoa prestatzen hasiko gara; urtero-urtero hobetuz, berrikuntzak txertatuz eta euskal literaturaren onena gure ume eta gazteei eskainiz.



Aurten, irakurgidak lehiaketa bat ere badu barnean eta askok bidali dituzte beraien erantzunak. Urtarrilaren 10ean, webgunean jarriko ditugu saridunen izenak, animatu eta parte hartu!



Ai, ai, ai... agujetak oraindik gure gorputzean! Bermio express abenturan parte hartu genuen hezitzaileek sentitu genuen nekea ikaragarria izan zen, baina aldi berean,

ikaragarrizko gozamena ere. Zelako ondo pasatu genuen bai gazteek eta baita hezitzaileek ere Durango, Zornotza eta Bermeon egindako proba eta zorakerietan! Ekintza bat bestearen atzetik, trenak, inmunitate probak, banderak, korrikaldiak eta barreak tartekatuz ziren egun horretako segundo guztietan... deskantsatzeko ia denborarik ere ez! Eguraldi eskasa izan genuen, baina ia konturatu gabe jarraitu genuen aurrera: Durangoko kaleetan zehar olibak batu, treneko txartela lortzeko argazkiak atera, tripakiak jan, Bermeoko faroetako bat aurkitu, langostinoaren harrapaketa, bertsoa osatu, albal paperarekin txurrorik luzeena egin, kode ezkuak asmatu, handicap bezala

eraman beharreko begiko partxeak, sudurrak, arrautzak eta ur botila handiak, herrikoei galderak egin... eta horrela gelditu gabe! Zapalduetako herri guztiak hankaz gora jarri genituen! Durangora heldu eta sari banaketa egin ondoren bakarrik izan genuen deskantsatzeko tartea... buff... baina... noiz errepikatuko dugu?

Gabonetarako badugu zerbait prestatuta eta intentsitate askokoa izango den ekintza da baita ere: Lasergunera irteera! Bilbon badago laser bidez burutzen den joko interaktibo bat eta prest gaude berriro ere topera ondo pasatzeko! Bermio expressen 56 gaztek eta 17 hezitzailek parte hartu genuen, ea oraingoan ere animatzen garen!

## Bermio express eta lasergunea

Aurten ere, Elorrion hirugarrenez eta Durangon lehenengoz guraso eta seme-alabak jolasean jarri ditugu euskarazko produktuen katalogoko jolasekin. Jolasen Txokoa aukera paregabea izan da etxeko txiki eta nagusiak euskaraz jolasten ikusteko, mahai jolas ugari ezagutu eta trasteatzen ibiltzeko. Abenduaren hasieran Elorrioko Iturri kultur etxean egon ginen eta abenduaren 20 eta 21ean Pinondo Etxean, Durangon. Hor ibili ziren, zoratze moduko puzzleak egiten, hainbat galdera erantzuten, mimika, tabua, pailasoen karta jolasak, laukitxotik laukitxora, bikoteak bilatu eta bilatu, puntuak lortu eta lortu. Batek baino gehiagok badaki jada Olentzerori zer eskatu, beste hainbestek aldiz, zer ekarriko ez dion.

## JOLASEN TXOKOA

## BERBALAGUN UGARI, SENDO




8. ikasturtea izango da hau egitasmoa hasi zenetik eta, esan daiteke, oinarriak ondo finaktuta dituela.

Azaroaren 4an egin genuen ikasturte berriko Berbalagunen batzarra. Hainbat lagun berri hurreratu zen jakin minez, eta egindako galdera denei erantzun bagenien ere, ekin artean ezin jakin Berbalagunek zenbaterainoko irrika sortzen duen.

Kontuak kontu, ehunetik gora Berbalagun hasi dira, 11 taldetan, elkartu eta euskara praktikatzeko asmotan. Lehendabiziko ekintzak ere egin dira: Himalaiara egindako bidaia bati buruzko diaporama, lehenengoa; eta Berbaroko txokoa egindako afaria, abenduaren 17an, bigarrena.

Animo ba, berbarokide! Ez ahaztu proiektu honetan euskaradun guztiok hartu genezakeela parte, talderen batetan sartu eta euskara ikasi gura dutenekin berba eginez.

<http://durangaldea.blogspot.com>



"Ez daukagu beti zertan tabernan geratu; beste nonbaiten ere bil gaitzke... eta datorren astean igerilekuan batzen bagara...?" Esan eta egin.

## HI, ARTISTA HI!

"Hi, artista hi!" lehiaketa, 6 eta 12 urte bitarteko ume eta gazteek, euskal kulturaren edo mitologian oinarrituta eginiko lanen lehiaketa da. Aurten seigarren urtez antolatu dugu. Lehiaketan parte hartzeko, zer egin behar izan den? Gabonen inguruko eskulana; Olentzeroren edota Mari Domingiren inguruko idazlan, gutun edo marrazkia; edo aurtengo berrikuntza bezala, Gabonetako euskal errezeta tradizional bat. Datorren urtera begira, baditugu ideia berri gehiago.

Lanak, abenduaren 16a baino lehen jaso ditugu Berbaroren bulegoetan bertan.

Epaimahaiak bere balorazioak egin ditu eta sari banaketa San Agustin kultur gunean egingo dugu, abenduaren 22an, arratsaldeko 18:00etan. Denok zaudete gonbidatuta!

## Julene Azpeitia lehiaketa

Kalean dago, jadanik, Julene Azpeitia lehiaketarako idazlan sarituen bilduma liburu formatuan. Ipuinak, olerkiak eta bertsoak argitaratu dira marrazkiekin txukun-txukun apainduta.



EUSKARA  
ZERBITZUA



# BERBAROBERRI

Gutunez eta Berbarotarra boletinez gain, bazkide batzuek emailez ere jaso duzue Berbarok bidalitako informazioa.

Hemendik aurrera, emailez jasoko duzuen informazio hori **"berbaroberri"** deituko da.

**Berbaroberri**, gutxienez hilean behin jaso ahal izango duzue, orain arte bi bidali ditugu.

Oso garrantzitsua deritzogu bazkideek Berbaroren inguruan sortzen diren albisteen lekukotasuna izateari.

Horrez gain, denok dakigu zeintzuk diren emailaren abantailak; berehalakotasuna da akaso aipagarriena, ikastaroak, zozketak, hitzaldiak, .... badaude berri batzuk gutuna heltzen denerako beranduegi dela.

Bazkide askoren email helbidea badaukagu baina beste askok oraindik ez diguzue helarazi, beraz, **berbaroberri** jaso nahi duzenok **berbarotarra@berbarotarra.com**- era idatzi. Jakin ezazue emandako datuak datu pertsonalen babeserako legeak ezartzen duenaren arabera soilik erabiliko direla.

# ikimilikili.klik

**berbaro.com** Berbaro elkartearen erakusleihoa estreinatu dugu jada

Zuengana agertu gara berriro ere, duguna eta garena modu dinamikoagoan erakusteko asmoz.

Webgunea langileen, zuzendaritza batzordekoen eta "di-da komunikazio"koen artean sortu dugu.

Diseinua aldatu eta atal berriak gehitu ditugu; berriak, aisialdia, kultur eskaintza, irakurzaletasuna, zerbitzuak ... informazio iturri izango dira. Gainera; bideoek, argazkiek eta egunerokotasuneko kontuek, indarra emango diote webguneari.

Estreinatu berri den erakusleihorekin elkartearen egunerokotasuna, dinamika, proiektu mardulak, ekimen xumeak edota lan-taldea erakutsi nahi dizkizuegu, besteak beste. Informatu eta entzun hauek dira laburbilduta webgunearen helburua nagusiak.

Berbaro.com langileok elikatuko dugu baina gune zabala eta bi noranzko izateko asmoa du. Beraz, poz handiz entzungo ditugu zuen iritziak eta ekarpenak; bazkideak zarete eta, elkartearen balio nagusia.

Zer egin behar duzue? Bada, berri bakoitzak erantzuteko aukera izango du. Aukera hori erabiltzea besterik ez, nahikoa da hasierako hartu-emana izateko. Gogoz ekin diogu proiektu honi eta gogo hori da transmititu nahi duguna.

Zeu ere, elkartearen parte sentitu nahi zaitugu. Aldez aurretik, eskerrik asko !

